

Galbarioac uscaraz ofrecimentua (*Etsain* herrian aurkitua)

JESÚS GOLDÁRAZ LIZASO*

Ezaguna denez, Etsain Anue ibarreko herria da. Duela hiru hilabete, 1994ko udaldean, herri honetako *Giltorena* deitutako etxe berritze lanean ari zirelarik, paperen artean aurkitua izan da hemen aurkezten dugun GALBARIOAC USCARAZ OFRECIMENTUA gurutzebidearen koadernutxoa.

Egilea José María Ibarrola apeza dela uste dugu, 20. orrialdearen atze aldean “Este libro lo escribió José María Ibarrola” esaten baita.

Apez hau Etsainen jaio zen 1864. urtean, Giltorena etxean hain zuzen, gurasoak eta lau aitatxi-amatxiak etsaindarrak zituelarik.

1889an apeztu zenetik bere apez urte guztiak garai hartan erabat euskalduna zen Atezko Beuntza herrian eman zituen. Herri honetan 1939ko urtarilaren 28an hil zen eta bertan ehortzirik dago.

Gurutzebidea Beuntzako bere apez lanetan erabiltzeko egin zuen, bertako parrokiari otoitz egiteko.

Ondorioz, XIX. mende bukaerako deboziozko eskuidazti baten aurrean gaudela baieztatu dezakegu.

Ohartxo batek dioenez, koadernuaren jabea Bernarda Ibarrola, José Mariaren arreba zen, bere anaiarekin Beuntzan bizi izan zena. Anaia hildakoan, Etsainera, bere sortetxera itzuli eta 1940ko urtarrilean hil zen.

* Filologian lizentziatua.

ESKUZ IDATZITAKO KOADERNUA

Luzeran 16 eta zabaleran 11 zm. dituen koadernu hau 12 orriz konposatuta dago, hauetako bakoitza erditik tolestatua; beraz, 24 orri denetara, erditik josirik. Orri guztiak zenbakiz seinalatuta daude. Egia esan, 2. eta 3. zenbakien orria falta da eta halaber, 9. zenbakia errepikatua agertzen da, bi orri horien edukiak desberdinak izan arren.

Itxuraz eta garai hartako deboziozko koadernu bati dagokionez, maiz erabilia izan zela antzematen da, koaderno bera zikin samarra eta bezturik baitago.

Esan bezala bere izenburua GALBARIOAC USCARAZ OFRECIMENTUA da. Baina, berez, Galbarioa edo Gurutzebidea hasi baino lehen, 1.ean, 4.ean eta 5. orrialdearen erdiraino - esan dugu 2. eta 3. orriak falta direla - sarrera gisa, gogoetako ariketa azaltzen zaigu, Galbariozko LENTAVICICO ESTACIO 5. orrialdeko erdi aldera agertzen baita.

Galbarioa 20. orrialdean amaitzen da. Bitxia denez, hamabost estazioen berri ematen digula aipatu behar da. Hurrengo orrialdean, arestian aipatutako egile eta jabearen izenak, azken honen izenpearekin, agertzen dira. Horrez gain, eta hurrengo orrietan segida emanez, Errosarioko bost misterio gloriosoen sarrera-otoitza eskaintzen zaigu.

Koadernuaren datuei buruz, hauexek dira eman daitezkeenak.

IZKRIBUAREN EUSKALKIA

Aipatu besterik ez, aurkeztu dugun eskuidatzia, Bonaparteren euskalkien sailkapenaren arabera, Ipar Nafarrera Garaiko euskalkian kokatzen dela eta honen barruan, Ultzamako azpieuskalkian hain zuzen ere.

Jakina denez, Ultzamako azpieuskalkia honako ibarretan mintzatzen da: Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz eta Ultzaman.

“Ipar Nafarrera ez da inondik ere bakarra eta molde berekoa. Desberdintasun nabarmenak daude azpieuskalki batetik bestera, are azpieuskalki berberaren barruan ere”¹.

Eta, nire ustez, aldaera frango somatzen da ultzameraren barruan ere, noski.

Dena den, bai Etsainen (egilearen sorterrria) bai Beuntza (berrogeita hamar urtez bizi izan zen herria eta GALBARIOAC USCARAZ OFRECIMENTUA koadernua hemen idatzi zuela suposatutako behar dugu), hizkuntzari dagokionez eta ondorio guztiekin, bete betean Ultzamako azpieuskalkian sartzen dira, bata Anue eta bestea Atetzen baitaude.

Hau da, beraz, eskuizkribu honen kokapen linguistikoa.

1. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Udako Euskal Unibertsitatea 1987.161 or.

Aurkezpen honetan ez gara sakonean deskribapen eta azalpen linguistikoetan sartuko. Hala ere eta sarrera gisa, hona hemen, orokorki esanda apunte labur batzuk:

a. Grafía

- / <V> erabiltzeko joera nahasi samarra, hitz berberan ere: veguie (15 orr.)-beguiec, bere (11)-vere (16), bioz (10)-vioz (17), bada (13)-eavada (18), vicio (16)-bicio (19)...
- Are gehiago, jatorrian euskal hitzak diren batzuk ere v-z idatzirik daude: vidia (18), verroqueygarren (19), alavayinay (12), garvitu (10), garvie (10), vi (15), vetor (17), verequin (17), vesoan (16)...
- <H> mailegu bakan batzuetan ageri da: humildadean (1, 3)...
- <G> bi bokalen artean sartzen da: berregun (17), agoas (14)...
- /H/ fonemaren arrastoren bat izango litzateke.
- <Ñ> sudurkari sabaikariaren erabilera: soñecoac (7, 13), baño (10), ciñuela (4), soñu (20), zañac (15)...
- Txistukariak. Beharbada, gaztelaniaren eraginagatik edo, ez dago frikari eta afrikatuen arteko bereizketarik. Beti [s] frikariaren alde jotzen du.

b. Fonetika

- Sinkopak. Oso maiztasun gutxiz, baina adibiderik ez da falta: atra (9), (atera ere agertu arren), lengo (4)...
- Bokak itxien (i, u) ondoko /a/ irekia, sistematikoki /e/ bokal erdiko bihurtzen da: burle (18), oyuque (13), peleatu de (15), eznazazule (4), oray de (20), erdien (15), dauque (15), billetu (18), puntebat (13), beguiratute (8), berrie (17)...
- Goranzko diptongoen garrantzia testuan, kontsonanterdiz osatutakoak, alegia: Guria (6, 13), suertiac (13), elciac (14), amandria (12), vatian (13), becadoria (6), ataria (4), batayacian (4), semia (21), cenian (22), ertian (20), zorianian (19), egunian (19), vidia (18), aldian (8), guciec (12), garvie (10), arripienzas (13), justua (11), estua (9), galduac (12), gloriosuac (21), beguiec (8), trabajuec (10), descuidoricgabe (4)...

c. Kontsonantismoa

- Errotazismoaren adibide batzuk: erratencion (9), amberce (9), amabor (1), bercela (12), orcegun (15)...
- Hitz hasieran, batez ere, herskari ahostunetarako joera: becadoria, becatu (biak, estazio guztietan)...
- Hitz barruan, aldiz, herskari ahoskabeak nagusitzen dira: ilta (1), lentavico (5, 8), ilteverea (19)...
- -n>ø: oray (20), orai (15)...

d. Izenaren morfologia

- Instrumentala maiztasun handiz -s burutzen da (askoz gutxiago -z): de-seos (4), arances puntas (6), aranzasquico (7), listus (10), santuas (13), ilces (14), agoas (14), deadrades (12), devocioas, aingerus (biak, azken partean), arripienzas (13)...
- Eta: amorioaz (7), loyez (10), negarrez (9), gogorrez (9), amorez (17)
- Genitiboa: aren > a(i)n: ama semea doloriac (14)...
- T.O.GEN (Transitiv Object Genitivization), hau da, objetu transitiboa-aren genitibatzearen arrastoren bat izan daiteke honako adibidea: “burle aundien adicen” (11), “pena oyen esplicaceco” (12).

e. Aditz morfologia

- Generoaldia. -n-z bukatzen diren aditzetan, -en formaren agerraldia: egonendire...
- Aginteraren formak:
NOR: asi gaitian (1, 20), acordazaitiaz (4), jarrizaitian (4), biurzaitia (5)...
- NOR-NORK: laun gachazu, lagun gachazu, iriquichazu, guia gachazu, izan dechala...
- Bidenabar, adibideetan ikusten dugunez, aipatzekoa da agintekeran, aditz oinaren erabilera sistematikoa.
- Euskalki honetan, gaur egun ere arruntak diren egitura hauek:
NOR-NORKen erabileraren orde, NOR-NORI-NORKaren egitura: “Virgina viocecoa Espiritu santuc bialdu cizun Apostoluen echera”.
zuacin (9) = 3^a pers. plur., JOAN aditza.
- Iraganean, “a” bokalari eusten zaio: zauquen (8)...
- Analogikoki sortutako partizipioak. -DU atzizkiaren eransketa: izanducen (1).

Oharra

Gaur egungo Etsaingo Giltorena etxekoei nire eskerrik beroenak luzatu nahi nizkieke. Aurkeztu dugun koadernua argitara emateko beraien jokabide zabala biziki eskertzen dut.

1

Galbarioac uscaraz ofrecimentua

P. Zorigaistoan izan ezdedingu jayo
guñen eguna.
Asi gaitian consideracen sobra gal
dude eguna.

Nay ez badegu burlaric eguin Je
 sus onaren pausaz.
 Esidezagun alde batera munduontaco
 gustoaz.
 Jesus ona da gure maistrua ea di
 zagun icasi.
 Nola eguin eriocea lucisfergandic
 igasi.
 Gure maistruac humildadean pasa
 turican mundua.
 Galbarioan eramancion beraitari
 contua.
 Bearvezala nola izanducen nay ba
 lembadegu jaquin.
 Deseacendut esplicacioa amabor esta
 cioarequin.
 Semea ilta cegoalaric sepultura san
 tuan.

4

Eznazazule bada ofenditu munduco
 diversioaz
 Eguindecoaz urriquituric joezazu ataria
 Yriquiceco deseos nago bayarren becado
 ria.
 Certan zabilce bide orretan gueye
 guinazo necacen.
 Acordacitiaz eriociaz asi contuac zu
 zancen.
 Acordazaitiaz batayacian emancina
 ren izanez.
 Nay ciñuela errenunciatu mun
 duez eta luciferrez.
 Acordazaitiaz eriociaz asi contuac
 zuzanzen.
 Zorgogorraquin arquicenzara gueye
 gui zarafricen.
 Nicdaquic ongui cer pasatuden zure
 confesioarequin.
 Eznazazu bada engañatuco jarrizaitian
 cerequin
 Jarrizaitian bada descuidoricgabe
 instante onez baliacen

5

Nay ez badegu negarrez egon
 infenuetan errecen.
 Useguindegu biurzaitia ez solo
 biur beriala
 Nay badezu eguin penitencia
 ongui etorricerala.

Lentavicico estacioa

Lentavicico estacioa dolores urri
 quituric
 Consideratu Jesus guriac cembat
 gauzquien gostaric
 Orcegun santu goycian eta Pila
 tosorren echean
 Soca gogorrez esturic zauqueten
 azotaceco ustian
 Pilatosorrec ecusirican gure mais
 trua onela
 Sey soldado aguinducioten azo
 taceco veriala.

6

Odol ustucen cijoalaric bere biaz esiric
 Paracioten buru santua arances puntas
 josiric.
 Jesus guria desmayatucen ! Pilatosen
 cruela.
 Jerusalendic ateraceco campoan ilbearzu
 tela.
 Cale guciac paseachala guruce pisuare
 quin.
 Bere arreta josicezala eta vi lapurayequin
 Becadoria iriquizazu dembora dela begui
 ec
 Becatu batec berricenditu Jesusen lla
 ga guciac
 Becadoria izandunaiz eta damu det vioz
 guciac
 Bertatic vada gonventicenaiz betor mise
 recordia.

Bigarren estacioa

Bigarrenco estacioa dolorez urriquitu
ric
Consideratu Jesus guriac cembat gauz
quien gostaric

7

Pausu onetan paraicioten soñian
Galbarioa.
Crueldadean quenducioten aranzasquico
coroa
da
Jerusalendic padecicera campora orain di
joa.
Gurucea du pisua eta dijoa afligituric.
Ala ere escusantuac acecoaldere estuac.
Arren lengo soñecoac azotaceco quenduac.
Emen para dizquiete ezagutuguezan
mundua.
Guruceartan antan artucituen gure be
catu pisuac.
Arrec guri cigun amorioaz ezaguguen
zan mundua
Becadoria iriquizazu dembora dela be
guiaic.
Becatu batec berricenditu Jesusen lla
gucia
Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz
guciaz
Bertatic Bada gonberticenaiz betor
misericordia.

Yrugarren estacioa

8

Yrugarrenco estacioa dolorez urriquituric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien gos
taric
Pausu onetan Jesus guria lentavicico aldian
Yndar faltan erorizaigu gurucian azpian
Emen Jesusen llagetatican isuriciren odo
lac
Gacioc dira gonberticeco ezbaguidare marmola,

Jeiqueceillela zaticezuen cupirericgabe judi
oac.
Erantzuncion ez da posible bencitucinan
pisuec.
Soca zauquen lepotic ille bizarretiquen.
Judio gaistoac tiratuceco ez zauquen cupi
rariquen.
Aldamenera begirature cen lagunic ague
ri
Gonvenicena eguin cezala escacencion aitari
Becadoria iriquizazu dembora dela beguiec
Becatuetec berricenditu Jesusen llaga guciac
Becadoria izandunaiz eta damudut bioz
guciac.
Bertatic bada gonberticenaiz betor misericor
dia

Laugarren estacioa

9

Laugarrego estacioa dolorez urriquituric.
Consideratu Jesus guria cembat gauz
quien gostaric.
Pausu onetan incontratucen amarequin
seme justua
Cijoalaric borreroaquin soca gogorrez estua
Ychaso aundibat eguiñic zauden ama
ren begui ederrac.
Ycic eguiten ezcion uzten iztarriaco odo
lac
Ecusirican seme justua ama andrea ne
garrez
Ynstante artan desmayatucen sentimentuz
eta dolorez.
Ceinzorroza cen ama semeac ceritucituen
ezpata
Bearbezala esplicaceco ojala baliz profeta
Pausu onetatic asi eta enterratucen artian
Seme onari lagunducioten pasio santu gu
cian.
Becadoria iriquichazu dembora dela begui
ec
Becatubatec berricenditu Jesusen llaga guciac.
Becadoria izandunaiz eta damu dut bioz
guciec

Bertatic vada gonberticenaiz betor misericor
cordia

Borgarren estacioa

9

Bosgarren estacioa dolorez urriquituric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien
gostaric.
Pausu lastimagarri oneta Judioac zuacin
esiric
Ez cezala Jesus allegatuco Gabarioa biciric
Diruequin asiciraren genden artean galdecen.
Ea iñor juan naizuen guizon arri laguncen.
Simon bacarric atra izancen amberce genden
ertetic
Losaric gabe naiciola eldu bere guruce santu
tic
Mundu onñan cembat guirare judio la
gun gaistoac
Losa degunac abzasaceco Jesusonaren pausuac
Ama andreac erratencion Losagabe lagunceco
Ezuquela arrec desioric jornaligabe uzteco
Becadoria iriquichazu dembora dela beguieic
Becatubatec berricenditu Jesusen llaga gu
ciec
Becadoria izandunaiz eta damudut vioz
guciac
Bertatic bada gonberticenaiz vetor misericor
dia

Seigarren estacioa

10

Seigarren estacioa dolorez urriquituric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien
gostaric
Pausu onetan Beronica zayo Jesusi atera
Bere aurrera pasatuzayo belaunico jarcera.
Listus ta loyez beteric ceuquen Jesusonac
aurpeguia
Andre onec ateracion oyalbat ongui garvie.
Yru doblían paratu eta berela cion garvitu
Andre onen baloriaz Judioac ciran arritu
Yru doblían paratucion Beronicare trabajue

c. Estampaturic uzten ciola bere aur
 pegui santua.
 Jesusonac logratucion Beronicari amorez.
 Escuac ceuzquien loturic baño asicizayon ne
 garrez.
 Becadoria iriquichazu dembora dela veguia
 Becatu batec berricenditu Jesusen llaga gu
 ciac
 Becadoria izandunaiz eta damudut bioz
 guciez.
 Bertatic bada gonberticenaiz vetor mise
 ricordia

Zazpigarren estacioa

11

Zazpigarren estacioa dolores urriquituric
 Consideratu Jesus guria cembat gauzquien
 gostaric
 Pausu onetan Jerusalenen orain bigarren
 aldian.
 Jesus lurrera erorizaigu portatearen er
 dian.
 Burle aundien ceramatela campora jerusa
 lendic
 Prisa aundian cela urquecea cuidade bar
 rendic
 Ciudadean despedician burle aundien adicen
 Ala ere ango gendia negarrez urcen asicen.
 Bere aitari deitucencion Jesusec modu onetan
 Fiadoria usadezala arren ciudade onetan.
 Ama justua eguizuarren amoriozco bioza
 Barreaizquigun gueren esayac balice ere erioza
 Becadoria iriquichazu dembora dela beguira
 Becatu batec berricenditu Jesusen llaga guci
 ac
 Becadoria izandunaiz eta damudut vioz
 guciaz
 Bertatic vada gonberticenaiz betor mise
 ricordia

Zorcigarren estacioa

12

Zorcigarren estacioa dolores iuriqui

turic.
 Consideratu Jesus guria cembat gauz
 quien gostaric
 Pausu onetan iceguincioten Jerusalengo alava
 Jesusen llaga cruelagatic negar eguiten zau
 deay
 Alabac onac eceguin negar nere tormentu
 catic
 Solo eguinvearduzu ceroc eta aurregatic.
 Jesus onac apenas cituen izoc agoticatera
 cer acera izuli nayaluque mundua
 engañacera.
 Judio guciec asiciraden osticoca eta gol
 peca.
 Men ondora eramanzuten negarrez
 eta priseca.
 Amandria eracusdiguzu alavayonay
 bezala
 Culpec gatic negar eguiten galduac gara
 bercela.
 Becadoria iriquichazu dembora dela veguie
 Becatu vatec berricenditu Jesusen llaga
 guciac
 Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz
 guciac
 Bertatic vada gonberticenaiz vetor mise
 recordia.

Bederacigarren estacioa

Bederacigarren estacioa dolorez urriquitu
 ric.
 Consideratu Jesus guria cembat gauzqui
 en gostaric
 Pausu onetan cijoalarik Galvarioco mendian
 Odol usturic erorizaigu irugarrenge aldian
 Ago santuas lurrajo eta orzaccizquion atera.
 Pena oyen esplicaceco arren mingañec oteda.
 Erremedioric ez ceuqueneta cebillalaric gequi
 cen
 Llaga guciec berritueta berriz lurrera e
 cincen.
 Judio guciec asiciraden deadrares eta oyu
 que.
 Ylbarragui ilberragu cer libratu nayagu

que.

Aldapa berez gogora eta arripienzas betea.
Orra gugatic cergustoetan cebillan Jesus maitia
Becadoria iriquichazu dembora dela veguiec
Becatubatec verricenditu Jesusen llaga guciac.
Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz

13

guciac

Bertatic bada gonberticenaiz vetor misericordia

Amargarren estacioa

Amargarren estacioa dolorez urriquitu
ric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien
gostaric
Emen soñecoac quenducioten Jaunari bur
latuceco.
Suertiac botacituen soñecoac ecarceco.
Para giartan arquitucencen arri puntebat
gaistoa
Larro gorrien eserizuten gucien juez justua
Beazuna emancioten quedarrearequin nasiric
Edancezala golpevatian isurigabe tantaric
Judio guciac asiciraren desafioca elcarri
Ceñec burla gueyago asmatucocion gucien
juez jaunari.
Ayen ertetic ateraciren desondra blasfemiac
Humildadean sufritucituen goratugabe

14

beguiac

Becadoria iriquichazu dembora dela veguia
Becatu vatec verricenditu Jesusen llaga gu
ciac
Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz guciac
Bertatic vada gonverticenaiz vetor misericordia

Amecagarren estacioa

Amecagarren estacioa dolorez urriquituric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien gos

taric
 Nere cristabac icaracenaiz esplicacea agoas
 Yru borrero Jesus viciric ilces jostera dijoa.
 Goracean matrulloarequin emancizquioten
 golpeac
 Consideratu ordu artaco ama semeant doloriac.
 Borrero oyen errabil gueyago tormetaceco
 Guruce pean paratu zuten elciac seguraceco.
 Jesus justuac zain guciec ceuzquien encujitu
 ric.
 Josteagatic beren gustora ucizizquioten ausia (?)
 Amalau pausuan arrastatuetan gurucearequin
 josiric, Judioac danzan asiciraren ongui
 aseguraturic.
 Becadoria iriquichazu dembora dela veguieci
 Becatubatec verricenditu Jesusen llaga guciec
 Becadoria izandunaiz eta damudut vior guciec
 Bertatic vada gonberticeco vetor misericordia.

Amavigarren estacioa

Amavigarren estacioa dolorez urriquituric
 Consideratu Jesus guria cembat gauzquien gos
 taic
 Anay justobat emen daucagu pena lastima
 garrian
 Agoniaquin peleatude vi lapuren erdien
 Burua dauque macurturic eta lepo zañac ausic
 Bere aitari suplicaceco ecin jasodu bururic.
 Bere aitari deytucencion erioceco orduan.
 Nola desamparacen azo seme bacarra mun
 dua
 Lapur cruelac eranzuncion vere ezquerreco al
 detic.
 Alvadaiteque libratu orai guruce ortatic
 Escuñecoac eranzuncion biciro lastimaturia

16

Gure culpec dira justua ezdu jaun onec cul
 paric
 Lapur vi ayen confesioa ceren cen diferencia
 Bata dago ceruetan eta infernuetan vercia.
 Becadoria iriquichazu dembora dela veguieci
 Becatu vatec verricenditu Jesusen llaga guciac

Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz
guciac
Bertatic vada gonverticenaiz vetor misericordia.

Amirugarren estacioa

Amirugarren estacioa dolorez urriquituric.
Consideratu Jesusguria cembat gauzquien gostaric
José eta Nicodemusec instrumentuec arturic
Gorpuz sandua escatuzuten viciro lastimaturic
Gurucetican eracusi eta amorio aundien
Ama onay paracioten vere vesoan erdien.
Ecusirican seme onaren odol ta llaga cruelac
Desmayaturic gueldituciren amaren begui
ederrac.
Ama andrea gugara causa zupuraceco dolo
rez,

17

Begui ederroc edequichazu seme jaunaren
amorez.
Seme onaren trabajuac acabatuac guciac
Aurrera seguituzuten amaren dolore aundiac.
Becadoria iriquichazu dembora dela veguiec
Becatu batec verricenditu Jesusen llaga guciec
Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz
guciaz
Bertatic vada gonberticenaiz vetor misericordia.

Amalaugarren estacioa

Amalaugarren estacioa dolorez urriquituric
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien gosta
ric
Sanjuan evangelista Nicodemusec eta
Joserequin.
Berregun pausuan eramanzuten gor
puz andia verequin
Para geartan edequizuten oguigunebat
berrie
Enterraturic estalizuten corpuz consola
garria.
Consideratu semeri cabe ama nolacen gueditu

Pausueguiten astencenbaño ezinzuquian
pensatu.

18

Nequez vadaere ellegatucen pilatosaren
echera
Seme onaren pausu sanduac andic berrira
atera
Pensadezagun mundos onetan oteguiraden
portacen
Gabilzanian gaueta egun munduco ponpey
seguicen.
Eavada ineguindegu garvidezagun vidia
ezvalinvadegu guero aita echiridago ataria
Eztuvalio bitartecoac aingutic diruac.
Confesioan bearditugu billetu ordugaldua.
Eavada adidezagun deitucendigu jaunonec
nioray
Errez bencicenauzu cuidau golpian erori.
Becadoria iriquichazu dembora dela veguia
Becatu vatec verricenditu Jesusen llaga guciac
Becadoria izandunaiz eta damu dut vioz
guciez
Bertatic bada gonberticenaiz vetor misericor
dia

Amabosgarren estacioa

19

Amabosgarren go estacioa dolarez urriqui
turic
Consideratu Jesus guria cembat gauzquien
gostaric
Yltevereala jausicinaren abranen sino ar
tara
Zure esperan zauden animac andic ciñu
cen atera.
Yllen ertetic bistucinaren irugarren egunian
Aguertu cinaizquion madalenari arenzaz
zorionian.
Ylte veogueygarren egunian eramanciñau
en cerura
Andic ere etorceco aujuzgacera mundura
Ceruartaco iruzquia illarguiata estrella

quin
 Adicera emanendu datocila coleraquin.
 Lurraquere eguiñenditu biciro soñuillunac
 Trajacen dituelaric gendiac eta ondasu
 nac.

20

Arren ondoan aitecodegu trompeta soñu
 illuna
 Jayquizaytezte juiciora oray de nere eguna
 Zer errespuesta emanendigu bacoachac bere con
 tuan
 Consideratu gaueta egun gauden ertian
 munduan.
 Egunarretan emengaudenac egongaitian go
 zacen.
 Becadoria ezuchiaren pausu sanduoc
 acencen.
 Anima oyec egonendire secula gure contura
 Sartuartaraño gure arimac gueren compa
 ña sandura
 Egunarretan guertagaitian oray gaudenac
 emen.
 Fiadoriaz usadezagun esandegun amen
 Ogustogaveco trabajua probreza istantecoa
Ocerua edo infernua secula seculacua.
 Jauna damudut zuofendituaz izan
 nazazu nitaz misericordie

Este libro lo escribió José María Ybarrola
 Este libro es de la Bernarda Ybarrola
 a 6 de Marzo de 1879

Bernarda Ybarrola

Becatarie, ama, Virginia, zaitugu, zura
 debocioaz, cumpliacendigu; egizazu, ma
 ria, gu gatic, erregu, erioceco, orduan, ezgai
 tecen, galdu

Virgine ama escogituria,
Gracia dizut escacen,
 Bost misterio glorisuac, Lagun gachazu esaten,

1^a

Devocioas esangodegu,
 Lemico misterioa,
 Guia gachazu ceruetara,
 Virgina viocecoa.
 Pencen ondoan ama santia,
 Yllen ertetic irtanic,
 Cegon semia gloriosua,
 Seme resucitaturic.
 Norc esango du cer alegria,
 Orduan artu cinduan,
 Laun gachazu orain ta beti,
 Eriococo orduan,

2^a

Devocioas esangodegu
 Bigarren misterioa
 Guia gachazu ceruetara
Virgina viocecoa
 Berrogai egun iragoeta
 Cerura iyo cenian,
 Gloriosoa eseri zuan,
 Aita beriac aldian.
 Norc esango du cer alegria
 Orduan artu cinduan
 Laun gachazu orain ta beti
Eriococo orduan

3^a

Devocioas esango degu
 Yrugarren misterioa
 Guia gachazu ceruetara
 Virgina viocecoa
 Espiritu santuc bialdu cizun;
 Apostoluen echera,
 Doay aundiaquin illuntasune,
Burutic ateracera,
 Norc esango du cer alegria,
 Orduan artu cinduan,

Laun gachazu orain ta beti,
Eriococo orduan,

4^a

Devocioas esango degu,
 Laugarren misterioa,
 Guia gachazu ceruetara,
Virgina viocecoa,
 Jesus justoa, zu ecustia gatic,
 Ceruan gustos veteric,
 Baceramaten gorpuz eta anime,
Ainguerus inguraturic,
 Norc esango cer alegria,
 Orduan artu cinduan,
 Laun gachazu orain ta beti,
 Eriococo orduan

5^a

Devocioas esango degu
 Bostgarren misterioa,
 Guia gachazu ceruetara,
 Virgina viocecoa,

Trinidadetan jarri ciñaden,
 Seme jaunaren aldian,
 Beti secula an egoteco,
 Beste gucían gañian.

Norc esango du cer alegria,
 Orduan artu cinduan,
 Laun gachazu orain ta beti,
 Eriococo orduan

Devocioas esan ditugu
 zure bost misterioac
 Virgine amac izan dechala
 Ongui errecibituac

Virgine amaren alabancetan
 Esangun Ave maria
 Seme jaunaren icen santuen
 Pater noster ta glorie
 Jaun diguigunvalia

LABURPENA

GALBARIOAC USCARAZ OFRECIMENTUA eskuz idatzitako koadernutxoia alde batetik, Gurutzebidea deboziozko praktikaz eta bestetik, Errosarioko zati batez osaturik dago.

Egilea Jose M^a Ibarrola apeza da, Etsainen (Anue) 1864.an jaioa eta Beuntzan (Atetz) 1939.an hila. Dirudienez, apez honek Beuntzako bere apez lane-tarako idatzi zuen koadernutxoia. 1994.eko udan aurkitua izan da Etsaingo Giltorenan, bere sortetxean.

Bonaparteren euskalkien sailkapenaren arabera, idazlan hau IPAR NAFA-RRERA GARAIA euskalkiari dagokio eta, honen barruan, ULTZAMAKo azpieuskalkiari, Anue eta Atetz ibarrak azpieuskalki honetan kokatzen baitira.

RESUMEN

GALBARIOAC USCARAZ OFRECIMENTUA es un pequeño cuaderno, escrito a mano, en el que, como el título lo indica, se recoge esta práctica religiosa del Vía crucis, que se completa en la parte final con una exposición de los misterios gloriosos del Rosario.

Su autor es el sacerdote José M^a Ibarrola, nacido en Etsain (Anué) en 1864 y fallecido en Beuntza (Atetz) en 1939. Lo más probable es que escribiera este devocionario a finales del s. XIX en Beuntza para uso de su parroquia. Ha sido encontrado en su casa natal de Etsain, de nombre Giltorena, en el verano de 1994. A tenor de la clasificación de los dialectos del euskara realizada por Bonaparte, el euskara de este devocionario pertenece al ALTO NAVARRO SEPTENTRIONAL y más en concreto, al subdialecto de ULTZAMA, al que pertenece el euskara tanto del Valle de Anué como el del Valle de Atetz.

RÉSUMÉ

Le petit cahier manuscrit "Galbarioac Uscaraz Ofrecimentua" porte sur la pratique religieuse du Chemin de Croix, complétée par une exposition des glorieux mystères du Rosaire dans ses dernières pages. L'auteur, le prêtre José M^a Ibarrola, né à Etsain (Vallée d'Anué) en 1.864 et mort à Beuntza (Vallée d'Atetz) en 1.939, écrivit probablement ce missel vers la fin du XIX^{ème} siècle à Etsain, à l'usage de sa paroisse. Le cahier est apparu à Beuntza, en été 1994, à Giltorena, nom de la maison natale du prêtre.

D'après la classification des dialectes du basque réalisée par Bonaparte, ce missel est écrit en basque parlé dans la Haute Navarre Septentrionale, plus précisément en sous-dialecte de la Vallée d'Ultzama, qui appartient au même groupe du dialecte parlé en Anué et en Atetz.

SUMMARY

Galbarioac Uscaraz Ofrecimentua is a small handwritten workbook that presents, as its title conveys, the religious practice of the Via crucis and finishes with an exposition of the glorious mysteries of the Rosary.

Its author was the parish priest José María Ibarrola, born in Etsain (Anué) in 1.864 and dead in Beuntza (Atetz) in 1939. It is most likely that this book of devotions were written in Beunza in the late XIXth century for the use of its parishioners. It was found in his family house, Giltorena, in his home village of Etsain in the summer of 1994.

According to Bonaparte's classification of the Basque dialects, the dialect used in this book of devotions can be identified as being the High Northern Navarrese and more specifically the Ultzama subdialect wich includes the language spoken in the valleys of Anué and Atetz.

